

AIAKO UDALEKU IREKIAK 2023

BEGIRALEAK HAUTATZEKO DEIALDIA

2023ko Uztailaren 3tik uztailaren 28ra udaleku irekiak antolatuko ditu Aiako Udalak 2007 eta 2020 urte bitartean jaiotako haur, nerabe eta gazteentzat. Honela, udaleku hauetan begirale gisa aritzeko lan poltsa osatzeko deialdia luzatzen dizuegu. Lan poltsa hau udalekuak dirauen bitartean bakarrik egondo da indarrean, hau da, uztailaren 31a bitartean.

Begiraleen kontratazioa Uztailaren 1tik uztailaren 31ra bitartekoa izango da.

Begiraleak hautatzerako garaian, hautagaiek bete behar dituzten **ezinbesteko baldintzak** honako hauek izango dira.

1. 18 urtetik gorakoak izatea edo 2023 urtean betetzea.
2. Euskara ezagutza izatea.

Bestalde, aukeratzeko baloratuko da:

3. Begirale titulua izatea 6 puntu
4. Eusko Jaurlaritzak homologatutako eskolak: 6 puntu
5. Beste eskolak: 4 puntu
6. Zuzendari titulua izatea (2 puntu)
7. Hezkuntzarekin zer ikusia duten ikasketak izatea (3 puntu)
8. Hezkuntzarekin zer ikusia duten ikasketak burutzen aritzea 0,5
9. Lan esperientzia urtea bakoitza puntu 1 (5 puntu gehienez)
 - Asialdiko begirale ludoteka edo gaztelekuetan
 - kirol begirale eskola kirolean.
10. Udaleku itxi eta irekietan hamabostaldi bakoitza 0,5 puntu. Gehienez ere 3 puntu.
11. Aiarra izatea (5 puntu)
12. Aiako udalak sustatutako kultur- kirol Aisialdi zerbitzuan Begirale moduan lanean egon izana 8 puntu

Aukeratuak izan diren hautagaiek, adingabekoekin lan egiteko aurrekari penalen ziurtagiria aurkeztu beharko dute, besteak beste.

Aukeratuaren artean berdinketarik egongo balitz, zozketa bidez erabakiko da.

Epaimahaia: Buru: Joxemari Aiertza. Mahaikideak: Laurentzi Iturain eta Arritokieta Manterola.
Idazkaria: Igor Iturain

Beraz, interesa duenak kurrikulum-a eta informazioa egiaztatzeko dokumentazioa Udaletxean aurkeztu beharko du. Epea martxoaren 20tik apirilaren 5eko arratsaldeko 2etan amaituko da. Ez da onartuko epez kanpoko izen-ematerik.



Behin behineko zerrenda apirilaren 21ean Aiako web orrian (www.aia.eus) argitaratuko da, zazpi laneguneko epea zabalduz erreklamazioak aurkezteko Udal bulegoetan. Behin erreklamazioak erantzunda, behin betiko zerrenda argitaratuko da Aiako web orrian. Kontratazioa, udalekuetan izaten den izen ematearen arabera izango.

Informazio gehiago 943131144 telefonoan edo aia@aia.eus helbide elektronikoan.